

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Hasierako onarpena ematea Berantevillako herrigune historikoaren birgaitze integratuko plan bereziaren aldaketa puntualari

Berantevillako Udalak, 2019ko otsailaren 13ko ohiko osoko bilkuran, Berantevillako BEPBren aldaketa puntuala onartu zuen, zeinak 40. Artikuluaren edukiari eragiten baitio, 40.3.8 leihoak, 40.3.10 behatokiak eta 40.3.12 erreten eta zorrotenak ahapaldietako materialak ugaritzeari dagokionean. Monumentu izaera duten eraikinen ordenantzek jatorrizko egiturari eusten diote.

Lurzoru eta hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 95.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, jendaurrean jartzen da hogeï egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn edo lurraldean salduenetako bat den egunkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe horretan, interesa dutenek espedientea aztertu ahal izango dute udal bulegoetan.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da hau.

Berantevilla, 2019ko otsailaren 19a

Jarduneko alkatea

MARIO PEREA ANUNCIBAY